GIPUZKOA
Ekin. Zaindu. Bizi.

# OINARRIZKO MATERIALEN KARPETA

## Gipuzkoako Foru Aldundiko Herritarren Partaidetzarako Erakunde Arteko Espaziora hurbiltzen diren udal-teknikari berriei harrera egiteko bide-orria

2024ko abendua



elhuyar

## Oinarrizko materialaren karpeta

Udal-teknikari berriarentzako oinarrizko baliabide eta materialen karpeta da hau, eta besteak beste hurrengo materiala topatuko duzu:

1. **Herritarren Partaidetzarako Erakunde Arteko Espazioa**

2. **Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzua**

3. **Herritarren partaidetzari eta ekintza komunitarioari buruzko arauak eta markoak**

4. **Gipuzkoako Foru Aldundiko Herritarren Partaidetzarako web-orria**



## 1 Herritarren Partaidetzarako Erakunde Arteko Espazioa

Erakundeen Arteko Espazioaren **xede nagusia** da:

Lan egitea herritarren partaidetzaren garapenean, Foru Aldundiaren eta toki entitateen zeharkako jarduketa esparrutzat hartuta. Horretarako, Espazioak elkarrizketak sustatzera eta herritarren partaidetzako politikak bultzatzera bideratutako erakunde-esparrua izan nahi du bereziki, eta, aldi berean, esperientzia eta praktika onak trukatzeko eta arlo horretako gaiak denon artean ikasteko esparru bat.

Eta **helburuak** dira:

- **Sare bat edo erakunde arteko topaketa espazio bat eratzea** Lurralde Historikoko maila anitzeko gobernuen ikuspegitik, batik bat, foru gobernuaren eta tokiko gobernuen ikuspegitik, eta horren helburua herritarren partaidetzarako politikak sustatzea izango da, herritarren eta erakundeen arteko erlazioak indartu daitezen.

- Herritarren partaidetzaren arloko erakundeen **esperientziak eta jardunbide egokiak trukatzeko espazio bat ezartzea**, alor horretako elkarrekiko ikaskuntzako erakunde-komunitatea eta hobekuntza instituzionala sustatuta.

- **Laguntza eta lankidetza teknikorako bideak hedatzea** Espazioan dauden erakundeek betebehar arauemaileak egikaritzeko, araudiak eta ordenantzak onartzeko eta herritarren partaidetzarako metodologiak, prozesuak eta tresnak martxan jartzeko.

- Herritarren partaidetzako alorrean Foru Aldundiaren **diru-laguntzen politika zehazten laguntzeko tresna izatea**.

- **Prestakuntza programak eta jardunaldi espezializatuak sustatzea**, baldin eta zeharkako alor honetan eskuduntzak dituzten kargu publiko adierazgarrien eskumen instituzionalak indartzen badituzte eta herritarren partaidetzaren alorreko foru eta udal zuzendari eta teknikarien gaitasun profesionalak garatzen badituzte.

## 1 Herritarren Partaidetzarako Erakunde Arteko Espazioa

Erakundeen Arteko Espazioaren **egiturak** hauek dira:

### FORO TEKNIKOA

**TREBAKUNTZAK**

Gipuzkoako Eskola Irekia

### BILGUNE TEKNIKOA

**Deliberazio teknikorako eta proposamenak egiteko egitura**

**Nork:**

- Herri Partaidetzako udal-teknikariak
- Herri Txikietako udal-ordezkariak

**Herri Txikien lantaldea**

**...**

### LANTALDEAK

Gai desberdinen lanketarako, berariaz, sortutako egiturak

### PLENARIA

**Erakunde Arteko Espazioko urteko planifikazioa onartzeko egitura**

**Nork:**

- Erakunde Arteko Espazioko kide guztiak

### EXEKUTIBOA

**Erakunde Arteko Espazioko plangintzarem inguruko erabakiak hartzeko egitura**

**Nork:**

- GFAKo Gobernantzako Departamentu burua
- GFAko Gobernu Oneko eta Berrikuntza Politiko-sozialeko zuzendaria
- GFAko beste kide bat
- 6 udaletako ordezkari politikoak

## Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzua

Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuko zeregin nagusia parte-hartzea sustatzea da, hiritarrek Gipuzkoako Foru Aldundiaren politiken sortzean eta kudeaketan zer esana izan dezaten.

Udalekin, herritarrekin eta herri erakundeekin harremanetarako eta elkarlanerako bideak irekitzen ditu Gipuzkoako Foru Aldundiaren departamentuetako politika publikoen diseinua, garapena eta ebaluazioa, partaidetza sustatuko dituzten tresnen bidez garatu ahal izateko; azken helburua da gobernantza demokratikoa GFAren nortasunaren ezaugarri bat izatea. Horretarako, baliabideak eta tresnak eskaintzen dira herritarren, herritar eragileen eta udalen partaidetza kultura sustatzeko; baita Gipuzkoako Foru Aldundiaren kudeaketan hura txertatzeko ere.



## Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzua

Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzua Gobernantza departamenduaren barnean kokatzen da, eta beheko irudian ikus daitezke zerbitzuko egiturak eta harreman-sarea.



## 3 Herritarren partaidetzari eta ekintza komunitarioari buruzko arauak eta markoak

- Herritarren Partaidetzako 5/2018 Foru Araua
- 2024/2027 Herritarren Partaidetza Programa
- Ekintza komunitarioa: GFAren eta lurraldeko udalen ekintza publikora bideratutako marko kontzeptual, estrategiko eta operatiboa
- Herritarren Partaidetza eta Ekintza Komunitariorako politika (Bideoa)
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa



## 4 Gipuzkoako Foru Aldundiko Herritarren Partaidetzarako web-orria




**PARTAIDETZA**
Lehen orria *

**PARTAIDETZA-PROZESUAK**
Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako parte hartzeko prozesuak ikus daitezke.

**ZUZENDARITZA EZAGUTU**
Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako zerbitzuaren inguruko informazioa: arau eta markoak, partaidetza-programa, partaidetzarako espazioak...

**PARTAIDETZA AURREKONTUAK**
Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako Aurrekontu Irekiak eta Ideiak deialdiaren inguruko zehaztasunak jasotzen dira

**DIRULAGUNTZAK**
Herritarrenn partaidetza sustatzeko dirulaguntzen inguruko informazioa (deialdiak, ebazpenak...)

**GIPUZKOAKO ESKOLA IREKIA**
Gipuzkoako Eskola Irekia herri partaidetzaren alorrean erakunde, eragile eta herritarren gaitasunak areagotzeko baliabideak eskaintzen dituen eskola da.
Atal honetan prestakuntza, jardunaldi, kongresu... informazioa dago eskura, baita hainbat gida eta balidabide ere.

**GEO-MAPA**
Gipuzkoako udalen partaidetza-egituren eta -esperientzien mapa



## 4 Gipuzkoako Foru Aldundiko Herritarren Partaidetzarako web-orria

**LEHEN ORRIA**

**ALBISTEAK**
Azken albiste eta jarduerak

**SARBIDE ZUZENA**
Gipuzkoako Eskola Irekia
Dirulaguntzak
Partaidetza-prozesuak

**PARTAIDETZARAKO ESPAZIOAK**

**PARTAIDETZAZKO ARAUAK ETA MARKOAK**




**TRAMITEAK**

**INTERESEKO ESTEKAK**

# UDAL-TEKNIKARI BERRIEN HARRERARAKO BIDE-ORRIA

**Gipuzkoako Foru Aldundiko Herritarren Partaidetzarako Erakunde Arteko Espazioa**

GIPUZKOA
Ekin. Zaindu. Bizi.



elhuyar